



KRISTIÑAU DOKTRINIA

Bertsio elektroniko honen egilea: Natxo Urkijo

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AnonimKristi.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetze Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

KRISTIÑAU DOKTRINIA
AITA GASPAR ASTETEK
ERDERAZ ESKRIBIDUA

ETA GERO

D. Gabriel Menendez de Luarcak gauza
asko erantzita atera ebana.

Orain euskerara biyortuta, urteiten
dau argitara zerbaist geiyagoturik.

LAUDIYOKO ABADE JAUNEN
enkarguz eta kostuz.

BIAR DIRIAN BAIYEZKOAKAZ
BILBON

Miserikordiyako etsian; Felipe Morales-en
Moldategiyan
1828 garren urtian



SARTZAIYERIA

Kristiñau fiyel guztiyak
 dagoz obligadurik
 deboziño artutera
 euren biyotz guztirik
 JESUS geure argiyaren
 Kurtze santuari:
 Non il gura izan eban
 gu ateretiarren
 geure pekatuaren
 ta areriyo gaistoaren
 agindupetarik.
 Orregatjarren bada
 ekandu biar zara
 sarri ziñatutera
 ta santigetara
 eginik iru kurtze:
 Bikokiyan bata,
 Jainkoak librau gaizan
 gogo deungetarik:
 bigarrena aoan,
 Jainkoak librau gaizan
 berba deungetarik:
 gero bularrian,
 Jainkoak librau gaizan

obra-gogo txarrerik:

onela esanik:

kurtze santiaren

señalia gaitik:

geure†areriyoetarik

libradu gagizuz

geure Jauna†

eta Jangoikoa.

Aitiaren, ta † semiaren, ta

Espiritu Santuaren uzengan. Am.

AITA GURIA

Aita guria Zeruetan zagozana: santifikadu bedi zure uzena: betor gugana zure erreinua, egin bedi zure borondatia zelan Zeruan, alan Lurrian. Emon egiguzu gaur geure egunian eguniango ogiya: eta parkatu eiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunai parketan deutseguzan legez: eta itxi ez eiguzu tentaziñoan yausten: baya libradu gagizuz gatxerik. Amen.

ABE MARIYA

Abe mariya, graziaz betia, Jauna da zugaz, bedeinkatia zara zu andra guztiyen artian, ta bedeinkatua da zure sabeleko frutua, JESUS. Santa Mariya Jangoikoaren Ama, Erregutu egizu gu pekatariyok gaitik, orain ta gure eriyotzako orduan. Amen.



KREDOA

Sinistuten dot Jangoiko Aita guztiz poderoso, Zeruaren eta Lurraren Kriyadoriagan; eta bere Seme bakar JESUKRISTO geure Jaunagan, zein sortuzan Espiritu Santuaren obraz ta graziyaz; yayo zan MARIYA Birjinia ganik; padezidu eban Ponzio Pilatosen poderiaren beian; izan zan kurtzifikadua, ila ta sepultadua; yatzi zan infernuetara, arik iru garren egunian erresuzitadu zan ilen arterik; igon eban Zeruetara, an dago yarririk

Aita Jangoiko guztiz poderosoaren alde eskoan; arik etorrikoda bizi-yak; eta ilak juzgetan. Sinistuten dot Espiritu Santuagan, Elexa Santa Katolikia, Santuen Komuniñoia, pekatuen parkaziñoia, aragiyaren erresu-rresiñoia, eta sekulako bisitzia. Amen.

SALBIA

Salbe Erregiña, ta Ama miseriakordiazkoa, bizitzia, ta dulzuria, Salbe esperanza geuria; Zuri deiyez gagoz Ebaren ume desterraduok; Zugana gagoz zizpuruka, llantu ta negar egiten dogula negarrezko erri onetan. Ea bada Abogada geuria, biyortu egizuz gugana zure miseriakordiyazko begi-yok; ta desterru au igaro azkeru erakuskuzu JESUS, zeure sabeleko frutu bedeinkatua. O Klemenziatzko Ama! O Padosia! O Dulze Birjina MARI-YA! Erregutu egizu gu gaitik Jangoikoaren Ama Santia, merezidu daigun alkanzeta JESU Kristoren promesak. Amen JESUS.

Jangoikoaren Legeko Mandamentuak dira amar:

lelengo irurak pertenezietan yakaz Jangoikoaren onriari: eta beste zazpirak projimuaren probetxuari

Lelengoa, Jangoikoa ametia gauza guztiyen gainian.

Bigarrena, bere uzen santuagaz juramentu alperrik ez egitia.

Irugarrena, domekak ta Jayak gordetia.

Laugarrena, Aita, ta Ama onretia.

Bostgarrena, iñor il ez eitia.

Seigarrena, aragizko pekaturik ez egitia.

Zazpigarrena, iñori ezer ostu ez eitia.

Zortzigarrena, iñori falso testimoniorik ez eregitia, ta ez guzurririk esatia.

Bederatzigarrena, projimuaren senar emazterik ez desietia.

Amargarrena. iñoen ondasun bidebagakorik ez gura izatia.

Amar Mandamentu oneek sartuten dira bitan, Jangoikoa amau ta serbitian gauza guztiyak baño geiyago, ta projimua geure burua legez. Amen.

Fedeko Artikuluak dira amalau:

lelengo zazpirak dira Jangoikotasunaren gainian; ta beste zazpirak JESU Kristo geure Jaun, Jangoiko, ta gizon egiazkoaren gizontasun santuaren ganian

Jangoikotasunaren ganekoak dira oneek.

Lelengoa, sinistu Jangoiko guztiz poderoso bakar bategan.

Bigarrena, sinistu dala Aitia.

Irugarrena, sinistu dala Semia.

Laugarrena, sinistu dala Espiritu Santua.

Bostgarrena, sinistu dala Kriyadoria.

Seigarrena, sinistu dala Salbadoria.

Zazpigarrena, sinistu dala Glorifikadoria.

Gizontasunaren ganekoak dira oneek.

Lelengoa, sinistu Jesu Kristo geure Jauna, gizona dan partez, sortua izan zala Espiritu Santuaren obraz, ta graziyaz.



Bigarrena, sinistu yayo zala Mariya Birjina ganik, Señora au donzella zala, Semia yayo baño lenago, yayokeran, eta yayo azkero.

Irugarrena, sinistu artu ebalariyotzia, ta pasiñoia gu pekatariyok salbetarren.

Laugarrena, sinistu yatzi zala infernuetara, eta atera zituzala bere etorrera santuaren begira egozan Guraso Santuen arimak.

Bostgarrena, sinistu irugarren egunian biztu zala ilen arterik.

Seigarrena, sinistu igo ebalari Zeruetara, eta an dagoala yarririk Aita Jangoiko guztiz poderosoaren eskoatati.

Zazpigarrena, sinistu arik etorriko dala biziyak, eta ilak juzgetan; onai emoiteko gloriya, bere mandamentu santuak gorde zituezalako; eta deungai betiko infernua, gorde etzitzuezalako.

KRISTIÑAU DOKTRINIAREN ESPLIKAZIÑOIA ITANDU, TA ERANZU- TEN DALA

Itanduten dot, Kristiñaua zara?

Eranzuten dot, Bai Jauna, Jangoikoaren graziya gaitik.

I. Kristiñauaren uzten ori noganik yatorzu?

E. Kristo geure Jauna ganik.

I. Zer gura esan dau Kristinauak?

E. Kristoren gizona.

I. Eta zer esan gura dau Kristoren gizonak?

E. Gizon bat, zeinek daukan Jesu Kristoren fedia, Bautismu Santuan artu ebana, eta zein dagoan bera serbiyotako opaturik.

I. Zein da Kristiñauaren señaia?

E. Kurtze Santua.

I. Zegaitik?

E. Dalako Kristo kurtzifikaduaren irudiya, zeinetan erredimidu genduzan.

I. Zeinbat modutan egiten dau Kristiñauak señaie ori?

E. Bitan.

I. Zeinuk dira?

E. Ziñatutia, ta santiguetia.

I. Zer da ziñatutia?

E. Da egitia iru kurtze esku eskoako orkoroagaz; lelengoa bekokiyen, bigarrena aonan, irugarrena bularran, geure Jangoikoagaz berba egiten dogula.

I. Erakutsi zelan!

E. Kurtze santiaren † señaia gaitik, geure † areriyotarik, libradu gagizuz † geure Jauna, ta Jangoikoa.

I. Zegaitik ziñatuten zara bekokiyen?

E. Jangoikoak libradu gagizanzat pensamentu deungetarik.

I. Zegaitik aonan?

E. Jangoikoak libradu gagizanzat berba deungetarik.

I. Zegaitik bularran?

E. Jangoikoak libradu gagizanzat obra, ta deseo deungetarik.

I. Zer da santiguetia?

E. Da egitia kurtze bat esku eskoako atz biyakaz, bekokirik bularrera, ta ezkerreko sorbaldarik eskoakora, uzentetan dogula Trinitade guztiz santua.

I. Erakutsi zelan?

E. Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren uztenian. Amen.

I. Nos egin biar dozu señaie ori?

E. Obra onen bat asten dogun guztiyan, edo tentaziñoren baten, nezesidade, edo peligraren baten aurkituten garianian: baita bere, oerik



yaigitorduan, etserik urteitorduan, Elexan sartutorduan, yaten asitorduan, eta oera yoatorduan.

I. Zegaitik orrenbeste bider?

E. Zegaitik denpora, eta leku guztiyeta tentau, eta persegietan gaituezan geure areriyoak.

I. Ze areriyo dira orreek?

E. Demoniñoa, Mundua, ta Aragia.

I. Bada kurtziak bauko orreen kontra indarrrik?

E. Bai Jauna.

I. Nondi dauko kurtziak indar ori?

E. Kristok berian bere eriyotziagaz benzidu zituzalako.

I. Kurtzia adoretan dozunian zelan esaten dozu?

E. Adoretan zaituguz, Kristo, eta bedeinketan zaituguz, zeure kurtze santuagaz erredimidu zendulako mundua.

Kristiñauak yakin biar dituzan gauzak

Ekusi dogu Kristiñaua zariana, Kristiñauaren uzeneti, ta señaleti: Esan egidazu orain.

I. Zeinbat gauza yakin, ta entendidu biardituz Kristiñauak uso errazozkora elzaiten danian?

E. Lau gauza.

I. Zeinzuk dira?

E. Lelengoa yakitia zer sinistuko daben: bigarrena zer eskatuko daben; irugarrena zer egin, edo obrauko daben; eta laugarrena zer artu, edo errezibiduko daben.

I. Zelan yakingo dau zer sinistuko daben?

E. Yakinik, eta entendidurik Kredoa, edo artikulu fedekoak.

I. Zelan yakingo dau zer eskatuko daben?

E. Yakinik, eta entendidurik Aita guria, eta beste Elexa Ama Santiaren oraziñoak.

I. Zelan yakingo dau zer obrauko daben?

E. Yakinik; eta entendidurik Jangoikoaren legeko amar Mandamentuak, bost Elexakoak, eta Obra miserikordiyazkoak.

I. Zelan yakingo dau zer errezibiduko daben?

E. Yakinik eta entendidurik zazpi Sakramentuak.

Kristiñau doktriniaren lelengo partia,

zeinetan espliketan dirian Kredoa eta Artikulu Fedekoak

I. Nok esan eban Kredoa?

E. Apostoluak.

I. Zetarako?

E. Guri fede santuko gauzak irakasteko.

I. Eta zuk zetarako esaten dozu?

E. Kristiñauok daukagun fediau konfesetako.

I. Zer da fedia?

E. Ekusi eztoguna sinistutia.

I. Ekusi zendun zuk yayoten JESU Kristo?

E. Ez Jauna.

I. Ekusi zendun ilten, edo Zerura igoiten?

E. Ez Jauna.

I. Eta sinistuten dozu?

E. Bai Jauna, sinistuten dot.

I. Zegaitik sinistuten dozu?



E. Jangoikoak alan agertu deutsalako Elexa Ama Santiari, ta onek alan irakasten deuzkulako.

I. Ze gauza dira, Kristiñaua legez, daukazuzanak eta sinistuten dozuzanak?

E. Erromako Elexa Ama Santiak daukazan, ta sinistuten dituzanak.

I. Ta zertzuk dira orreek?

E. Fedeko artikulua, Kredoan dagozan legez.

I. Ze gauza dira Fedeko Artikuluak?

E. Dira Fedeko misterioetarik prinzipalena.

I. Zetarako dira Fedeko Artikuluak?

E. Emoiteko ezauera argiyago bat geure Jangoikoarena, eta JESU Kristo geure Erredentoriarena.

I. Nor da gure Jangoikoa?

E. Da gauza bat esan, eta pensau al leitekianik andiyena ta miragarriyena: Jaun bat ezin geiyagoan ona, poderoso, sabiyoa, justoa, gauza guztiyen prinzipiyoa, eta akabua.

I. Trinitate guztiz Santua nor da?

E. Da Jangoikoa bera, Aitia, Semia eta Espiritu Santua, iru persona distinta, eta Jangoiko egiazko bakar bat.

I. Aitia Jangoikoa da?

E. Bai Jauna.

I. Semia Jangoikoa da?

E. Bai Jauna.

I. Espiritu Santua Jangoikoa da?

E. Bai Jauna.

I. Iru Jangoiko dira?

E. Ez Jauna ezpada Jangoiko egiazko bakar bat.

I. Aitia semia da?

E. Ez Jauna.

I. Espiritu Santua da Aitia edo Semia?

E. Ez Jauna.

I. Zegaitik?

E. Dirialako personak bata bestia eztirianak, izan arren Jangoiko egiazko bakar bat.

I. Orlan zeinbat izaite edo naturaleza, entendimentu eta borondate dauko Jangoikoak?

E. Naturaleza bakar bat, entendimentu bat, eta borondate bat.

I. Eta zeinbat persona?

E. Iru distinta, zeinzuk dirian Aitia, Semia, eta Espiritu Santua.

I. Zelan da Jangoikoa guztiz poderoso?

E. Bere gura izanagaz bakarrik egiten dabelako gura daben guztiya?

I. Zelan da Kriyadorea?

E. Gauza guztiyak egin zituzalako ezebere ezerik.

I. Eta zeu zetarako egin zinduzan Jangoikoak?

E. Bera bizitza onetan ametako, ta serbiyeta, eta gero gloriyan betiko gozetako.

I. Zelan da salbadorea?

E. Graziya emoitena dabelako, eta pekatuak parkatuten dituzalako.

I. Zelan da glorifikadorea?

E. Gloriya emoitena deutzalako bere graziyan ilten danari.

I. Bauko Jangoikoak, guk legez, gorputzik?

E. Jangoiko dan partez, ez Jauna, dalako espiritu purua; baya bai gizon dan partez.

I. Iru personetarik zein egin zan gizon?

E. Bigarrena, zein dan semia.

I. Aitia egin zan gizon?

E. Ez Jauna.

I. Espiritu Santua egin zan gizon?



- E. Ez Jauna.
- I. Zein bada?
- E. Bakarrik Semia, zeineri, gizon egin azkero, deretxo JESU Kristo.
- I. Orlan, bada, nor da JESU Kristo?
- E. Da Jangoiko biziaren Semia, gizon egin zana, gu erredimiyetaren, eta guri zelan bizi erakustiarren.
- I. Eta zeinbat izaite, edo naturaleza, entendimentu, eta borondate dauko JESU Kristok?
- E. Naturaleza bi, bata Jangoiko dan partez, eta bestia gizon dan partez: entendimentu bi, Jangoiko dan partez bata, eta gizon dan partez bestia: eta borondate bi, bata Jangoiko dan partez, eta bestia gizon dan partez.
- I. Eta zeinbat persona eta memoriya dauko?
- E. Persona Jangoikozko bat bakarrik, zein dan Trinite gurtiz santuko bigarren personia; eta memoriya bat bakarrik gizon dan partez, bada Jangoiko dan partez, eztau biar memoriyarik, gauza guztiyak bere aurrian daukazalako.
- I. Zer esan gura dau JESUSEk?
- E. Salbadoria.
- I. Zetarik salbau ginduzan?
- E. Geure pekatuetarik, eta Diabruaren kautiberiyorik.
- I. Zer esan gura dau Kristok?
- E. Unjidua.
- I. Zegaz izan da unjidua?
- E. Espiritu Santuaren graziaz, eta doez.
- I. Kristo geure Jauna zelan sortu zan, eta zelan yayo zan Donzella zan Ama ganik?
- E. Jangoikoak ori milagroez egiten ebala.
- I. Ze misterio da ori?
- E. Enkarnaziñoko misterioa.

I. Zer sinistuten dozu enkarnaziñoko misterioan?

E. Trinite gurtiz santuko bigarren personia, zein dan Semia, gizon egin zala Ama Birjiniaren errai gurtiz garbiyetan; ez gizonaren obraz, ezpaba Espiritu Santuaren birtutez, bere donzellatasunaren kalte bage.

I. Zeinbat gauza obrau zituzan, bada, Espiritu Santuak Enkarnaziñoko Misterioan?

E. Lau gauza.

I. Zeinzuk dira?

E. Lelengoa, formau eban gorputz bat Ama Birjiniaren Sabel santuan bere odol gurtiz garbiyagaz. Bigarrena, kriyadu eban Arima bat ezere ezerik. Irugarrena, gorputza, ta arimia batu zituzan alkarregaz. Laugarrena, Trinite gurtiz santuko bigarren personiak beragan artu, ta beragaz batu zituzan gorputz, ta arima oneek; eta alan, leen Jangoiko baño etzana, Jangoiko izatia galdu bage, geratu zan gizon eginik; zeinari deretxo JESU Kristo.

I. Eta zelan yayo zan milagroez?

E. Urteiten ebala Mariya Santisimaren Sabelerik, bere donzellatasunaren kalte bagarik, eguzkiyaren argiyak kristal bateti urteiten daben legez, kristala urratu, ta loitu bagarik.

I. Bere Ama gero beti donzella bizi izan zan?

E. Bai Jauna beti.

I. Zegatik Kurtzian il gura izan eban?

E. Gu libretarren pekatu rik, eta betiko eriyotzarik.

I. Zelan, bada, yauzi gintzan betiko eriyotza orretan?

E. Pekatu egiten ebala Adan gure lelengo gurasoak, zeinegan guztiyok egin gendun pekatu.

I. Bauko Kristok Aitarik, edo Amarik?

E. Jangoiko dan partez, dauko Aita, zein dan Aita eternoa, eta eztauko Amarik: eta gizon dan partez dauko Ama, zein dan Ama Birjina, eta eztauko Aitarik.

I. Eta nosik onakoa da JESU Kristo?



E. Jangoiko dan partez beti betikoa Aita Eternoa, ta Espiritu Santua legez; baya gizon dan partez Ama Birjiniaren Sabel santuan sortu zanik onakoa.

I. Zer deretxazu dala á Infernua, zeinetara yatzi zan, il azkero, Kristo geure Jauna?

E. Ez kondenaduen lekua, ezpada justoak egozan Linboa.

I. Bada, bago infernubat baño geiyago?

E. Bai Jauna, lau dagoz lurraren biyotzian; eta deretxe kondenaduen Infernua, Purgatoriyoa, seiñen Linboa, eta Justuen Linboa, edo Abrahamen Senoa.

I. Eta zer dira orreek?

E. Kondenaduen Infernua da leku bat, zeinetara yoaten dirian pekatu mortalian ilten dirianak, an tormentu, ta pena artian betiko egoteko: Purgatoriyoa da leku bat, zeinetara yoaten dirian graziyan ilten dirianen arimak, baya pagau baya guztiz euren pekatuen zorra, an pena ikaragarriyakaz garbituak izaiteko: Seiñen Linboa da leku bat, zeinetara yoaten dirian, uso errazoeskora eldu baño leenago, batiatu bagarik ilten dirianen arimak, an beti egoteko Jangoikoa eguño ekusi bagarik: Eta Justuena, edo Abrahamen Senoa da leku bat, zeinetara yoaten zirian, JESU Kristok gu erredimidu baño leenago, graziyan ilten zirianen arimak, guztiz garbituta egozanak: eta leku berbera, zeinetara benetan yatzi zan JESU Kristo.

I. Zelan yatzi zan?

E. Yatzi zan bere arimia, Jangoikotasunagaz baturik.

I. Eta bere gorputza zelan geratu zan?

E. Baturik Jangoikotasuna beragaz.

I. Zelan biztu zan irugarren egunian?

E. Batuten ziriala barriro bere gorputz, ta arima gloriyaz betia, ostera iños il ezeiteko.

I. Zeinbat garren egunian igo eban zeruetara?

E. Berrogeigarren egunian.

I. Ze modutan?

E. Bere poderiyoz, ta birtutez?

I. Zer esan gura dau yarririk egoitiak Aita Jangoiko guztiz podero-soaren alde eskoan?

E. JESU Kristok Jangoiko dan partez daukala gloriya bardina Aitiagaz, ta Espiritu Santuagaz: eta gizon dan partez beste guztiyak baño geiyago.

I. Nos etorriko da biziyak, eta ilak juzgetan?

E. Munduaren akabuan.

I. Eta orduan biztuko dira il guztiyak?

E. Bai Jauna, leen zituezan gorputz, ta arima eurekaz.

I. Eta Munduaren akabua baño leenago juzgaduak izango gara?

E. Bai Jauna, guztiyak ilten dirianian juzgadu, eta sentenziaduko dituz Jangoikoak; onak Zeruko gloriya gozetara, eta deungak betiko penak padeziyetara Infernuan.

I. Nor da Espiritu Santua?

E. Trinitate guztiz Santuko irugarren personia; Aitia ta Semia legez Jangoiko egiyazkoa dana.

I. Zer sinistuten dozu esaten dozunian: sinistuten dot Santuen komuniñoa?

E. Kristiñau fielak daukiela parte batak bestien obra onetan, gorputz baten zatiyak legez, zein dan Elexia.

I. Zer da Elexia?

E. Da kristiñau fiel guztiyak batera egiten daudeen gorputza, zeinen burua dan Aita Santua.

I. Nor da Aita Santua?

E. Da Sumo Pontifize Erromakoa, Kristoren Bikariyo, edo ordeko mundu onetan, zeineri guztiyok obeditu biar deusagun.

I. Zer esan gura dau pekatuen parkaziñoak?

E. Elexa Santan dagozala pekatuak parketako mediyoak, zeinzuk dirian Sakramentu Santuak.

I. Zer esan gura dau aragiyaren erresurrei-ñoiak?



E. Judiziyoko egunian guztiyok biztuko gariala orain daukaguzan gorputz, ta arima eurekaz: artzaiteko bakotxak merezietan daben alogera, edo kastigua.

I. Zer esan gura dau sekulako bizitziak?

E. Bizitzau akabau azkero, izango dala beste betiko bat, edo inos akabauko eztana: zeinetan egongo dirian, Jangoikoa Jangoiko dan arte guztiyan, onak Zeruan gloriya gozetan, eta deungak Infernuan pena ika-ragarriyak padezietan.

I. Kredoa eta Fedeko Artikuluez gaineti beste gauzarik sinistuten dozu?

E. Bai Jauna, Eskritura Santan dagoana, eta Jangoikoak bere Elexiari agertu deutzan guztiya.

I. Ze gauza dira orreek?

E. Ez ori itandu niri, nasalako yakituriya bagakua: Doktoriak dituz Elexa Ama Santiak erantzuten yakingo daudeenak.

M. Ondo diñozu: bada Doktoriai yagoke, ta ez zuri, gure fede santuko gauza guztiyen kontu emoitia: zuretzako asko da Artikuluena, Kredoa dagozan legez emoitia.

Kristiñau Doktriniaren bigarren partia

zeinetan espliketan dan zer eskatu biar dan; eta Elexa Ama Santiaren oraziñoak

Ekusi dogu zelan dakizun zer sinistu biar dozun, zein dan lelengoa: gagozan bigarrenera, zein dan zer eskatu biar dan yakitia. Esan egidazu.

I. Nok esan eban Aita guria?

E. JESU Kristok.

I. Zetarako?

E. Guri oraziño egiten irakasteko.

I. Zer da oraziño egitia?

E. Da Jangoikoagana biyotza eregitia, ta berari mesediak eskatutia.

I. Zeinbat modutakoa da oraziñoa?

E. Bitakoa.

I. Zeintzuk dira?

E. Gogoagazkoa, edo mentala; eta aoagazkoa, edo bokala.

I. Zer da oraziño mentala?

E. Da arimako sensun, edo potenziyakaz egiten dana: memoriayagaz gogora gauza onen bat ekarten dogula: entendimentuegaz gogoan gauza ori darabilgula, ta bere ganian pensetan dogula: eta borondatiagaz afektoak, eta deseo santuen frutu onak ateraten doguzala: kontu daigun, pekatuen gorrotoa, humiltasuna &a. edo gogo onen batzuk artzaiten doguzala, zelangoak dirian, ondo konfesetako, bizitza obatuteko, edo besteren batzuk.

I. Zer da oraziño bokala?

E. Da berbakaz egiten dana, zelangoa dan egiten doguna Aita guria esaten dogunian.

I. Eta zelan egin biar da oraziño?

E. Atenziñoagaz, humildadiagaz, konfianziagaz, eta perseberanziyagaz.

I. Aita guria esaten dozunian nogaz berba egiten dozu?

E. Geure Jaun, eta Jangoikoagaz.

I. Non dago gure Jangoikoa?

E. Leku guztiyetan, espezialmente Zeruan, eta Santisimo Sakramentu Altarakoan.

I. Eta JESU Kristo non dago?

E. Jangoiko dan partez leku guztiyetan, eta gizon dan partez baka-rrik dago Zeruan eta Santisimo Sakramentu Altarakoan.

I. Zein da oraziñoen artian onena?

E. Aita guria.

I. Zegaitik?

E. Kristok bere aotik esan ebalako, Apostoluak eskatu ta.

I. Zegaitik geiyago?



- E. Daukazalako zazpi eskari karidadeti datozanak.
- I. Zeintzuk dira?
- E. Lelengoa da santifikadu bedi zure uzena.
- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
- E. Jangoikoaren uzena izan dila ezagutua, eta onradua mundu guztian.
- I. Zein da bigarrena?
- E. Betor gugana zure erreinua.
- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
- E. Erreinau daiyala Jangoikoak gure arimetan emen lurrian graziyaz, eta gero emon daigula gloriya.
- I. Zein da irugarrena?
- E. Egin bedi zure borondatia zelan Zeruan, alan lurrian.
- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
- E. Egin daigula Jangoikoaren borondatia lurrian gagozanok, Zeruan dagozanak egiten daudeen legez.
- I. Zein da laugarrena?
- E. Emon egiguzu gaur geure egunian eguniango ogiya.
- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
- E. Emon daigula Jangoikoak gorputzerako mantenimentua, eta ari-marako graziya, ta Sakramentuak.
- I. Zein da bostgarrena?
- E. Parkatu egiguzuz geure zorrak; geuk geure zordunai parketan deutseguzan legez.
- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
- E. Jangoikoak parkatu deiguzala geure pekatuak, geuk parkatu deutsegun legez gatx egin deuskuenai.
- I. Zein da seigarrena?
- E. Itxi ez eiguzu tentaziñoan yausten.
- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

- E. Jangoikoak ezteigula itxi yausten, ez konsentietan pensamentu, ta tentaziño deungetan, zeintzukaz Demoniñoak pekatuan yausi eragin gura deuskun.
- I. Zein da zazpigarrena?
- E. Baya libradu gagizuz gatxerik.
- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
- E. Jangoikoak libradu gaizala arimako ta gorputzeko gatx, eta peligrustiyetarik.
- I. Zegaitik diñozu asikeran, Aita guria Zeruetan zagozana?
- E. Jangoikoagana biyotza eregiteko, ta eskatuteko mesediak humil-dadiagaz, ta konfianziagaz.
- I. Zer esan gura dau akabuan esaten dozun, berbiak: AMEN?
- E. Alan izan deila.
- I. Zeintzuk dira ama Birjiniari esaten deutzazuzan oraziñorik onenak?
- E. Abe Mariya, eta Salbia.
- I. Nok esan eban Abe Mariya?
- E. Angeru San Gabrielek Ama Birjiniari barri onak emoitera etorri zanian.
- I. Nok esan eban Salbia?
- E. Elexa Ama Santiak dauko beretzakozat artuta.
- I. Zetarako?
- E. Ama Birjiniari mesedeak eskatuteko.
- I. Abe Mariya edo Salbia esaten dozunian nogaz berba egiten dozu?
- E. Ama Birjiniagaz.
- I. Nor da Ama Birjiniya?
- E. Da Señora bat birtutez, eta graziyaz betea, Jaungoikoaren Ama, eta zeruan dagoana.
- I. Eta altaran dagona nor da?
- E. Da Zeruan dagoanaren imajina, eta irudi bat.



- I. Zetarako dago an?
- E. Guri akordarazoteko Zeruan dagoana, eta bere imajinia dalako erreberenziya egin daiyogunzat.
- M. Bada beste ainbeste egin biar deutsezu beste Santuen imajinai eta gorpu-zatiyai bere.
- I. Egin biar deutsegu oraziño Angeruai, eta Santuai bere?
- E. Bai Jauna, geure bitertekoai legez.
- I. Ze gauza dira Angeruak?
- E. Dira, Zeruan Jangoikoa gozetan dagozan Espiritu zoriyoneko batzuk.
- I. Zetarako egin zituzan Jangoikoak?
- E. Bera beti alabada, ta bedeinkatu dagiyentzat.
- I. Zetarako geiyago?
- E. Bere Ministroak legez Elexia gobernetako, eta gizonak yagoteko.
- I. Orlan zuk bere baukazu zure Angeru guardakoa?
- E. Bai Jauna , baukat, eta bakotxak dauko beria.
- M. Bada artu egiyozu deboziño andi bat, eta egunian egunian enkomendau zakiyoz.

Irugarren partia,

Zeinetan espliketan dan zer egin, edo obrau biar dan

- Ekusi dogu zelan dakizun zer sinistu, ta zer eskatu biar dozun: dakusgun orain zelan dakizun zer obrau biar dozun.
- I. Esan egizu: zein da Jangoikoaren legeko lelengo mandamentua?
- E. Jangoikoa ametia gauza guztiyen ganian.
- I. Nok ametan dau Jangoikoa?
- E. Bere mandamentuak gordetan dituzanak.

- I. Zer da Jangoikoa ametia gauza guztiyen ganian?
- E. Gurago izaitia gauza guztiyak galdu, bera ofendidu baño.
- I. Zetara geiyago obligetan gaituz mandamentu onek?
- E. Bera bakarrik adoretara gorputzeko ta arimako erreberenziya guztiyagaz, beragan sinistu, ta esperetan dogula fede biziya gaz.
- I. Nok egiten dau pekatu onen kontra?
- E. Idolo, edo Jangoiko falsoak adoretan, edo sinistuten dituzanak: fedieren kontrako gauzaren bat sinistuten dabenak; edo fedeko misterio santuren baten dudetan dabenak; edo doktrinia biar dan legez eztakiyanak; Fedeko, esperanzako, ta karidadeko aktoak, egin biar dirianetan egiten ezituzanak; Jangoikoagan biar dan asperanzia galtzaiten dabenak; edo Sakramenturen bat disposiziño txarragaz artzaiten dabenak.
- I. Nok geiyago?
- E. Aztuen kontuak, ta barri emonak sinistuten dituzanak; eta sorginkeriyak, edo beste onelango bide bagako gauzaren batzuk egiten dituzanak.
- I. Zein da bigarrena?
- E. Bere uzen santuagaz juramentu alperrik ez egitia.
- I. Nok egiten dau juramentu alperrik?
- E. Juramentu egiten dabenak egiya bagarik, justiziya bagarik, eta nezesidade bagarik.
- I. Zer da juramentu egiya bagarik egitia?
- E. Da juramentu egitia guzurragaz, edo batek uste dabenaren kontra.
- I. Eta ze pekatu da juramentu egiya bagarik, edo dudiagaz egitia?
- E. Pekatu mortala, Jauna, juramentua gauza txiker baten gainian bada bere.
- I. Eta iñori on egitiarren, edo iñok erregututa, egin lei , guzurragaz juramentu?
- E. Ez da mundu guztiya gatik bere.
- I. Zer da juramentu justiziya bagarik egitia?



E. Da juramentu egitia gauza gaisto, edo txarren bat egingo dala; kontu daigun, projimuari gatxen bat egingo deutsal.

I. Eta ze pekatu da justiziya bagarik juramentu egitia?

E. Pekatu mortala, gauza txarra pisuzkoa bada: eta arina bada, pekatu beniala.

I. Zer da juramentu nezesidade bagarik egitia?

E. Da juramentu egitia egin biar andi bagarik, edo ezerezkeriyak gaitik.

I. Eta ze pekatu da ori?

E. Pekatu beniala, faltau ez azkero juramentuaren egiyak, ez justiziyak.

I. Eta gauza onen bat egiteko juramentu, boto, edo promesa daukanak kunplidu biar dau?

E. Bai Jauna; eta ez kunpliyetia, edo lar luzatutia da pekatu mortala, gauza pisuzkoaren ganian izan azkero.

I. Eta pekatu da kriyaturak gaitik juramentu alperrik egitia?

E. Bai, Jauna, euretan euren kriyadoriari juramentu egiten yakolako.

I. Ze modutan egiten da juramentu Kriyaturak gaitik?

E. Esaten dala, kontu daigun, neure arimia gaitik, Zerua gaitik, lurra gaitik &a. au alan da.

I. Ze erremediyo dago juramentu alperrik ez egiteko?

E. Artutia usua esateko bai, edo ez, Kristok irakasten deuskun legez.

I. Eta mandamentu onetan eragozten da beste gauzaren bat geiyago?

E. Bai, Jauna, eragozten da blasfemia bere, zein eztan besterik, ezpabere berba lotsabakoren batzuk Jangoikoaren, edo bere Santuen kontra esatia; eta da pekatu mortala.

I. Zein da irugarrena?

E. Domekak eta Jayak gordetia.

I. Nok gordetan dituz Jaiyak?

E. Meza enzun, eta bearrik egiten ezdabenak nezesidade baga euretan.

I. Eta ze pekatu da Jai egunetan nezesidade bagarik biar egitia?

E. Pekatu mortala, ordu biz gora egiten bada; eta aez beera bada, pekatu beniala geiyen partez.

I. Zein da laugarrena?

E. Aita, eta Ama onretia.

I. Nok onretan dituz gurasoak?

E. Obedezidu, sokorridu, eta erreberenziyeta dituzanak.

I. Nok egitendau onen kontra pekatu mortala?

E. Etzeko gobernuko, eta aziyera oneko gauzetan gurasoen esanik egin gura eztaudeen humiak: euren nezesidadetan sokorridu, edo lagundu gura ezteutseenak; birao, barre, edo burla egiten deutseenak; eskua eranzi, edo zematuten dituezanak; eta euren konseju, ta bayezkoa bagarik eskontzarako bidiak artzaiten dituezanak.

I. Nortzuk besterik sartzaiten dira gurasoen uzengan?

E. Nagusiyagoak edadian, dignidadian, eta gobernuan.

I. Eta mandamentu onetan sartzaiten dira humiak euren gurasoen alderako daukiezan obligaziñoa baño geiyago?

E. Bai, Jauna, nagusiyagoak euren azpikoen alderako, eta gurasoak euren humien alderako daukeezanak bere.

I. Eta zeintzuk dira orreek?

E. Emoitia yan edana, doktrina ona, ejenplu ona, eta bere denporan ondo yagoken estadia.

I. Eta ze pekatu da orreetan faltetia?

E. Geyen partez, pekatu mortala.

I. Zein da bostgarrena?

E. Iñor il ez eitia.

I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Ez iñori gatzik egitia, ez obraz, ez berbaz, ezta desioz bere.

I. Nok egiten dau pekatu mortala mandamentu onen kontra?

E. Bere buruari, edo projimuari eriyotzia, edo beste gatx andiren bat deseetan deutsenak, edo gorroto deutsenak; edonorbere il, eridu, edo



manatuten dabenak; ordituten danak; osasunian gatz andiya egingo deuseen gauzak yaten dituzanak; bere burua il, edo ilteko peligruan iminten dabenak; eta norberari, edo besteri birao egiten deutsanak.

I. Zer da birao egitia?

E. Da batek, edo norberaren buruentzako, edo besterentzako gatxen bat eskatutia.

I. Eta ze pekatu dau birao egitia?

E. Pekatu mortala, Jauna, gatz andiren desioagaz egiten bada; eta alango desio bagarik bada, pekatu beniala, beti ez arren.

I. Nortzuk, bada, egiten daudee pekatu mortala alango desio bagako biraoakaz?

E. Geiyen partez gurasoak, eta nagusiyenak, euren azpikoen aurrian birao egiten daudeenak; eta birao egiteko ekandu daukienak, etxiteko aleginak egiten ezpadiuez.

I. Eta zegaitik ori?

E. Zegaitik euren esate, ta ejenplu deungakaz emoitien deutseen bestiai Jangoikoa ofendiyetako bidia, zeineri deretxon eskandalua.

I. Zein da seigarrena?

E. Aragizko pekatuak ez egitia.

I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Izan gaitezala kastoak, eta garbiyak pensamentuetan, berbetan, eta obretan.

I. Nok egiten dau pekatu mortala mandamentu onen kontra?

E. Ezaukera osoagaz pensamentu loiyetan gustu artzaiten dabenak, obrazko gauzarik egiteko gogorik euki ez arren; gauza loiyak kantau, esan, edo gutuz enzuten dituzanak; eta norberagaz edo bestegaz eskuka loiyak, edo gauza desonestuak daukezanak, edo euki gura dituzanak.

I. Zein da zazpigarrena?

E. Iñori ezer ostu ez eitia.

I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Ez kendu, ez euki, ta ez gura izatia besteren gauzarik, yaubiaren borondatez kontra.

I. Nok egiten dau pekatu mortala mandamentu onen kontra?

E. Gauza oneetarik edozein egiten dabenak, edo beste moduren baten projimuari bere ondasunetan kalte andiya egiten deutsanak.

I. Eta projimuari bere ondasunetan, dan moduan dala, kalte egiten deutsanak ze obligaziño dauko?

E. Dauko obligaziño estua guztiyen erreskata al bait leen egiteko.

I. Zein da zortzigarrena?

E. Iñori falso testimoniorik ez eregitia, ta guzurrik ez esatia.

I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Ez projimua gaitik juzgu txarrik arin egitia, eta bere faltak ez esan, ta ez enzutia.

I. Nok austen dau mandamentu au?

E. Errazoe andi bagarik juzgu deungia egiten dabenak, kreitua kendu, sekreto agertu edo guzurra esaten dabenak.

I. Eta ze obligaziño dauko projimuari kreitua kenzaiten deutsanak esaten dabela bera gaitik egin eztaben pekatuaren bat, edo egin badau bere, zabal ez dabilena; edo aurpegira bere faltak esarten deutsazala?

E. Dauko obligaziñoa lengo moduan iminteko galdu eragin deutsanak kreitua, edo estimaziñoa.

I. Zer eragozten da bederatzigarren, eta amargarren mandamentuan?

E. Aragizko atseginen, eta iñoren ondasunen desio bide bakoak.

M. Esan egizuz Elexa Ama Santiaren mandamentuak.

E. Elexa Ama Santiaren mandamentuak dira bost.

Lelengoa, Meza osoa entzutia Domeka, ta Jayetan.

Bigarren, urtian bein edolabere konfesetia, edo leenago eriyotzako peligrurik badago, edo komulgauko bada.

Irugarrena Paskua erresurreziñoekoetan komulgetia.

Laugarrena Elexa Ama Santiak aginduten dabenian barau egitia.



Bostgarrena Amarrenak, eta primiziyak Elexa Ama Santiari pagetia.

I. Zetarako dira mandamentu oneek?

E. Jangoikoaren legekoak obeto gordetako.

I. Eta lelengora, zein dan Meza enzutia, nortzuk dagoz obligaurik?

E. Uso errazoezkora eldu dirian kristiñau guztiyak.

I. Eta zelan enzun biar da?

E. Atenziño, errespeto, eta deboziño andiyagaz; Kristoren pasiño santuan, edo beste gauza onen baten pensetan dogula; edo deboziño ez errezetan dogula.

I. Eta ze pekatu egiten dau motibo, edo errazoe on bagarik, Meza enzuten eztabenak, edo Meza guztiyan, edo zati andiyan atenziño baga dagoanak, edo Mezia uts egiteko peligran yarten danak?

E. Pekatu mortala?

I. Eta bigarrenera, ta irugarrenera, zeintzuk dirian konfesetia, ta komulgetia nortzuk dagoz obligaurik?

E. Uso errazoaskoa daukeen kristiñau guztiyak.

I. Eta deungaro konfesetan, ta komulgetan dirianak gordetan dituez mandamentu orreek?

E. Ez, Jauna; eta konfesiño, ta komuniño bakotxian egiten dituez pekatu mortal bi.

I. Eta ilteko peligruban konfesore bagarik ekusten danak, zer egin biar dau?

E. Kontriziñozko akto bat, konfesetako gogoagaz.

I. Eta laugarrenera, zein dan barau egitia, nortzuk dagoz obligaurik?

E. Ogetabat urte kunplidu daudeenak.

I. Eta zelan egin biar da barau?

E. Egüerdiyan, eragotzi bako yanariyakaz, bazkari bakar bat egiten dala.

I. Eta onetan faltau bagarik goshian ezer artu lei?

E. Bai, Jauna, artu lei onzabat legez motibo arinenbat badago.

I. Eta gaubian zer artu lei?

E. Artu lei kolaziñoan konziyeniya oneko jente artian usetan dana.

I. Eta motibo, edo errazoe on bagarik barau egiten eztabenak ze pekatu egiten dau?

E. Pekatu mortala.

I. Eta nortzuk dagoz obligaurik bijiliya, ta barau egunetan okelarik yan ez eiten; eurretan okelia ta peska gauzia nastian yatordubaten yan ez eiten: eta arrauntzarik, ta esne gauzarik garizuman, bulda bagarik, yan ez eiten?

E. Uso errazoezkoa daukeen guztiyak.

I. Eta ze pekatu egiten daudee gordetan ezituezanak?

E. Pekatu mortala, orreetarikoren bat austen daudeen bakotxian.

Miserikordiyazko obrak dira amalau:

Zazpi espiritualak, edo arimakoak, eta beste zazpi korporalak, edo gorputzekoak

Espiritualak dira oneek.

Lelengoa, eztakiyanari irakastia.

Bigarrena, biar dabenari konseju ona emoitia.

Irugarrena, erratuten dabena zuzendutia.

Laugarrena, injuriyak parkatutia.

Bostgarrena, triste dagoana konsoletia.

Seigarrena, projimuaren faltak, ta argaltasunak paziyenziyatan eroatia.

Zazpigarrena, biziyak, ta ilak gaitik Jangoikoari erregututia.

Korporalak dira oneek.

Lelengoa, Gaishoak bisitetia.

Bigarrena, gose danari yaten emoitia.



Irugarrena, egarri danari edaten emoitia.

Laugarrena, kautiboak erreskatetia.

Bostgarrena, billosak yanzitia.

Seigarrena, pobre bidestiyai ostatu emoitia.

Zazpigarrena, ilai lurra emoitia.

I. Zegaitik deretxe miserikordiyazkoak?

E. Justiziyaz zor eztirialako.

I. Nos obligetan daudee pekatuaren beian?

E. Gizon yakinen eretxian nezesidade andiya dagoanian.

I. Eta zer alkanzetan dau batek miserikordiyazko obra oneekaz, eta egiten dituzan beste obra onakaz, nai aginduak diriala, nai borondatezkoak?

E. Jangoikoaren graziyan badago, merezietan dau arimako graziya, eta zeruko gloriya geiyagotutia; pagetan dituz bere pekatuen zorrak, eta alkanzetan dituz Jangoikoaganik ondasun andiyak, alan bere ariman, zein bere gauzetan, konbenietan bayakaz.

I. Zegaitik diñozu Jangoikoaren graziyan badago?

E. Zegaitik pekatu mortalian batek egiten dituzan obra onakaz ezin merezidu lei, ta ezin pagau lei pekatuen zorrik; ta bai bakarrik alkanzau leiz, edozelanbere, Jangoikoaganik mesederen batzuk.

Laugarren partia,

zeinetan espliketan dirian artu biar dirian Sakramentuak

Ekusi dogu zelan dakizun zer sinistu, zer eskatu, ta zer obrau biar dozun. Dakusgun orain zelan dakizun zer errezibidu biar dozun; zein dan azkenengoa.

Esan egizuz Sakramentuak.

Elexa Ama Santiaren Sakramentuak dira zazpi: lelengo bostak dira biar biarrak izatez edo borondatez, zeintzuk baga ezin salbau leiteke gizoa etxiten badituz desprezioz: beste biyak dira borondatezkoak.

Lelengoa, Bautismua.

Bigarrena, Konfirmaziñoa.

Irugarrena, Penitenziya.

Laugarrena, Komuniñoa.

Bostgarrena, Estremauziñoa.

Seigarrena, Ordia.

Zazpigarrena, Matrimoniñoa.

I. Ze gauza dira Sakramentuak?

E. Dira señaleari agiri batzuk, JESU Kristo geure Jaunak egin, ta imini zituzanak, euren mediyoz emoiteko guri bere graziya, ta birtutiak.

I. Zer da graziya?

E. Da izaite Jangoikozko bat, zeinek egiten dabena gizona Jangoikoaren seme, ta Zeruko herederu.

I. Eta zelan deretxo graziya oneri?

E. Santifikantia, edo santututen dabena.

I. Eta bagoz onez ostian beste graziya modu batzuk?

E. Bai Jauna, bagoz beste batzuk, zeintzuei deretxee graziya lagun-garriyak, eta arimako argialdiyak, zeintzuk bagarik ezin asi, ezin aurrera eroan, ta ezin akabau giñaikian salbaziñorako gauzarik.

I. Eta onek zer dira?

E. Jangoikoak, pekatuan yausi ez egiteko, eta obra onak egiteko emoitien deuskuzan sokorru, edo laguntasun batzuk, zelangoak dirian Sermoiak, ejenplu onak, uste uste bako eriyotzak; eta argi-aldi batzuk, zeintzukaz, Jangoikoak argituten dituzan gure entendimentuak; eta desio santu batzuk, zeintzukaz bizkortuten dituzan onerako gure borondatiak.

I. Zer birtute emoitien daudee Sakramentuak graziyagaz batera?

E. Prinzipalenak dira iru, Teologalak, ta Jangoizkozkoak.



- I. Zeintzuk dira?
- E. Fedia, Esperanzia, ta Karidadia.
- I. Zer da Fedia?
- E. Ekusi eztoguna sinistutia Jangoikoak alan agertu dabelako.
- I. Zer da Esperanzia?
- E. Esperetia Zeruko gloriya Jangoikoaren graziya, eta geure obra onak diriala mediyo.
- I. Zer da Karidadia?
- E. Jangoikoa ametia gauza guztiyen ganian, eta geure projimuak geure burua legez, eurakaz egiten dogula, eurak geugaz egin dagiyeen gura-ko geunkian legez.
- I. Zetarako da Sakramentu Santu Bautismukoa?
- E. Kentzaiteko pekatu orijinala, ta beste, batiatuten danagan, aurkituten dan edozein.
- I. Zer da pekatu orijinala?
- E. Da arako pekatua, zeinegaz yayoten garian guztiyok, eta yatorkun geure lelengo gurasoetarik.
- I. Nondi sartzaiten da Elexara?
- E. Bautismu Santuti.
- I. Eta bago Zerurik batiatu eztirianentzat.
- E. Ez Jauna.
- I. Bada nora doaz batiatu bagarik ilten dirian seintxuak?
- E. Linbora.
- I. Eta ze pena daukee leku atan?
- E. Eztaukee sentiduko penarik Infernukoak legez: baya bai Jangoikoaren arpegiya inos ekusi ezina.
- I. Orlan pekatu andiya da seiñari bautismoa galerazotia?
- E. Bai, Jauna, norberaren erruz izan azkero.
- I. Nortzuk euki daroe, bada, onetan errua?

E. Zerbaist egiten daudeenak sortuta dagoan seintxua galtzaiteko, eta bardin onetarako konseju deungia emoiten daudeenak.

I. Zelango pekatua da au?

E. Zerura gedar egin daroan pekatua, eta Jangoikoak aserre kasti-gau daroiana.

I. Nortzuk geiyago euki daroe onetan errua?

E. Yartzen dirianak sabelian daukeen seiña galtzaiteko peligruan.

I. Nok batiatu lei seiña ilteko peligruan dagoanian?

E. Edozeinek, ondo batiatuten yakin azkero.

I. Zelan ondo batiatuten da?

E. Ezarten yakala seiñari ura, albaledi burura, ta ezpabere gorputze-ko zatirik andiyenera, eta ura ezartorduan esaten diriala, batiatuteko adiyagaz, berba oneek: Nik batiatuten zaitudaz Aitaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren uzengan. Amen.

I. Eta zer egin biar da seiña yayoten bada il-etxuriagaz, edo ezeri eragiten ezteutsala?

E. Batiatu bada-ezpadan, ustelduta urten ezpadau, eztalako ilik dagoanean seiña ziertua mobimenturik ez egitia: eta esaten da alangoan: Bizi bazara: Nik batiatuten zaitudaz Aitaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren uzengan. Amen. Eta bota ura berbakaz batera.

I. Eta zer egingo da galtzaiten, edo botetan dan seiña bada denporabakoa, ta guztiz txikerra?

E. Batiatu ardura baga, ura ezarten yakala berbakaz batera, leen esan dan moduan.

I. Zetarako da Sakramentu Santu Konfirmaziñokoa?

E. Konfirmetako, eta indartuteko Bautismu Santuan artu gendun fedian.

I. Eta uso-errazozkora eldu danak ze pekatu egiten dau Sakramentu au pekatu mortalean artzaiten dabela?

E. Pekatua mortala.

I. Bada zer egingo dau pekatu ez egiteko?



- E. Konfesau ondo leenago.
- I. Zetarako da Sakramentu Santu Penitenziazkoa?
- E. Batiatu azkeroko pekatuak paretako.
- I. Ze pekatu dira orreek?
- E. Mortalak, eta benialak bere bai.
- I. Zer da pekatu mortala?
- E. Da esatia, egitia, pensetia, edo gura izatia zerbaist Jangoikoaren legiaren kontra gauza pisuzkoan.
- I. Zegaitik deretxo mortala?
- E. Ilten dabelako egiten dabenaren arimia.
- I. Zelan ilten dau?
- E. Graziyaren bizitzia kenduta.
- I. Eta noiz artzaiten dogu Sakramentu Penitenziazkoa?
- E. Ondo konfesadu, ta ausoluziñoa artzaiten dogunian.
- I. Eta zeinbat gauza biar dira ondo konfesetako?
- E. Bost, Jauna.
- I. Zeintzuk dira?
- E. Lelengoa, esamina konziyenziazkoa egitia.
- Bigarrena, artzaitia damu egiazko bat Jangoikoa ofendidu dabelako.
- Irugarrena, eukitia propositu firme bat pekatuak geiyago ez egiteko.
- Laugarrena, Konfessoriari bere pekatu guztiyak artez esatia.
- Bostgarrena, Konfesiariak emoitzen daben penitenziya kunpliyetako gogoia artzaitia.
- I. Zer da esamina konziyenziazkoa?
- E. Leen ondo konfesau zanik, eta artian egin dituzan pekatuak memoriara ekartia?
- I. Nondi egiten da esaminia?

E. Jangoikoaren legeko Mandamentuetati, bost Elexakoetati, eta obra Miserikordiyazkoetati; kontua ateretan dabela batek mandamentu bakotxian zetan uts egin daben, obraz, berbaz, pensamentuz, edo desioz; begiratuten dala norberen bizimodu, ofiziyo, eta estaduko obligaziñoetara bere: eskatu azkero leenago Jangoikoari norberen pekatuak ezaututeko argiya.

I. Zeinbat modutakoa da damua?

E. Bitakoa.

I. Zeintzuk dira?

E. Kontriziñozkoa, edo amodiyozkoa: eta Atriziñozkoa, edo bildurrezkoa.

I. Zer da Kontriziñozko damua?

E. Da sentimentu, pena, edo damutasun egiazko bat, pekatariyak bere biyotzian artzaiten dabena, Jangoikoa ofendidu dabelako, izanik ain ona: proposituagaz konfesetako, emendetako, eta kunpliyetako penitenziya.

I. Zer da atriziñozko damua?

E. Da sentimentu, pena, edo damutasun egiazko bat pekatariyak bere biyotzian artzaiten dabena, Jangoikoa ofendidu dabelako, edo infernuaren bildurrez, edo pekatuaren ezaintasuna gaitik, edo graziya, eta gloriya galdu dabelako; proposituagaz konfesetako, emendetako, eta kunpliyetako penitenziya.

I. Eta damu biyoetarik zein da onena?

E. Kontriziñozkoa.

I. Zegaitik?

E. Kontriziñozkoa amore garbiti datorrelako, atriziñozkoa barriz, bildurreti: kontriziñozko damueguz; konfesau baño leenago, parkatuten yakaz bateri pekatu mortalak, eta yarten da Jangoikoaren graziyan: baya atriziñozko bakarraguz ez, konfesiñoaguz batera ezipada.

I. Eta damu biyoetarik zein euki biar da ondo konfesetako?

E. Geiyenak esaten daudee atriziñozkoa asko dala; baya obeto eta seguruago da kontriziñozkoa erroatia: eta au eukitiarran egingo dau konfesetan danak.



- I. Eta nos euki biar da damua?
- E. Konfesorik ausoluziñoa emon baño leenago.
- I. Zer da propositua?
- E. Da gogo firme bat sekula geiyago Jangoikoa pekatu mortalagaz ez ofendiyetako.
- I. Zer da aozko konfesiñoa?
- E. Da esatia Konfesoriarik pekatu mortal guztiyak, engañu bagarik, ta guzur bagarik.
- I. Eta pekatu mortalen bat konfesatzagarik etxiten dabenak, konfesiño ona egiten dau?
- E. Etxiten badau lotsaz, bildurrez, edo esamina faltaz ez Jauna, baya bai aiztuta etxiten badau, edo bere erru bagarik.
- I. Eta akordetan bayako gero, zer egin biar dau?
- E. Urrengo konfesiñoan konfesau.
- I. Eta pekatu mortalen bat lotsaz konfesau bagarik etxi dabena salbau leiteke penitenziya eginda?
- E. Ez, Jauna, Santuak baño penitenziya geiyago balegi bere, konfesetan ezpadau pekatua.
- I. Eta bago konfesorik ausolbidu ezin leiyen pekatuak?
- E. Ez, Jauna, bada guztiyentzako topaukodau erremediyoa bakotxak bere erriyan, Erromara-bagarik.
- I. Eta ondo konfesetan dira euren pekatuak jixxituta, edo edertuta legez esaten dituezanak?
- E. Ez, Jauna, esan biar dirialako daukeen gaistotasun guztiyagaz, eta konziyentziyak erakusten daben legez.
- I. Eta konfesetan danak damu bagarik, propositu bagarik, edo penitenziya kunpliyetako gogo bagarik konfesiño ona egiten dau?
- E. Ez, Jauna; egiten dau, bai, sakrilejiyozko pekatu mortal andi bat; eta barrero konfesau biar dituz esan zituzan pekatu guztiyak, egin eban sakrilejiyozkoagaz batera.

- I. Eta nortzuk egin daroez euren konfesiñoak damu bagarik, eta propositu bagarik?
- E. Okasiñoetarik apartetan ezirianak, eta emendiyorik eztaukeenak.
- I. Eta damu egiazkoa, eta propositua artzaiteko zer egin biar da?
- E. Konfesetara yoan baño leenago Jaungoikoari eskatu arren, lagundu dagiyola; gogora ekarri bere majestadiak egin deutzazan mesediak, edo bere pasiño, ta eriyotzia, edo bere ontasun parebakoa; eta biyotz biyotzetik askotan esan akto kontriziñozkoa.
- I. Zer da penitenziya, edo satisfaziñoa?
- E. Da pagetia pekatuak gaitik zor dan penia, kunpliyetan dala konfesorik emoniko penitenziya.
- I. Eta penitenziya kunpliyetan eztabenak egiten dau konfesiño ona?
- E. Konfesorik emoitzen deutzan badauko kunpliyetako gogoa, bai Jauna; baya konfesorik emoitzen deutzan ezpadauko kunpliyetako gogorik, ez Jauna: gero kunplidu arren bere.
- I. Eta ze pekatu da penitenziya ez kunpliyetia, edo lar luzatutia?
- E. Pekatu mortala, Jauna, pisuzkoa bada penitenziya ori.
- I. Eta pekatuak gaitik zor dan penia ezin pagau lei penitenziyagaz ezpada?
- E. Bai, Jauna, pagetan da Jangoikoaren graziyan egiten dirian obra on guztiyakaz bere, eta Induljenziyak irabaziyagaz.
- I. Zer dira Induljenziyak?
- E. Dira graziya batzuk, zeinen bitartez parkatuten dan, mundu onetan, edo Purgatoriyoan, pekatuak gaitik pagau biar dan penia.
- I. Eta zelan irabaziko dira?
- E. Egiten diriala estadu graziyazkoan, aginduten dirian gauzak.
- I. Eta Purgatoriyoa doazanak, pagau eztaudeelako mundu onetan euren pekatuen zorra guk sokorridu giñai?
- E. Bai, Jauna, gure pekatuen zorra pagetako egiten doguzan obra onakaz eurakaz, arimen onerako egiten badoguz.



I. Eta pekatu mortalien yausten dan guztian, biar dau batek bertati konfesau parkatu dakiyontzat?

E. Ondo litzateke, baya eztago obligaziñorik.

I. Zer egin biar dau bada?

E. Artu pekatu egin dabelako kontriziñozko damu egiazkoa, proposituagaz emendetako, ta konfesetako Elexa Ama Santiak aginduten dabenian.

I. Zer da pekatu beniala?

E. Da pekatu mortalerako disposiziño bat.

I. Zegaitik deretxo beniala?

E. Arin yausten dalako berian gizona, eta arin parkatuten yakalako.

I. Zeinbat gauza gaitik parkatuten yako?

E. Bederatzi gaitik.

I. Zeintzuk dira?

E. Lelengoa, Meza enzutia gaitik.

Bigarrena, komulgetia gaitik.

Irugarrena, Ni bekatariyau esatia gaitik.

Laugarrena, Obispoaren bendiziñoa gaitik.

Bostgarren, ur bedeinkatua gaitik.

Seigarrena, ogi bedeinkatua gaitik.

Zazpigarrena, Aita guria esatia gaitik.

Zortzigarrena, Sermoia enzutia gaitik.

Bederatzigarrena, bularra yoa gaitik, Jangoikoari parka eskatuten yakala.

I. Zegaitik diñozu Jangoikoari parka eskatuten yakala?

E. Erakusteko artu biar dogula pekatu benialen damu santua, euren parkaziñoa gauza oneetati alkanzau gura badogu.

I. Eta pekatu benialak konfesau biar dira?

E. Ondo da konfesetia, baya eztago obligaziñorik.

I. Eta pekatu benialak baño ezpadaukaz konfesetara doianak, zer egin biar dau damua, ta propositua segurututeko?

E. Konfesau, benialakaz batera, leenago konfesauta daukan pekatu mortalen bat bere.

I. Zetarako da Sakramentu Santu Komuniñoa?

E. Biar dan legez errezibidu azkero, izan dintzat geure arimeen mantimentua, eta graziya azi, ta geyagotu deiguntzat.

I. Zeinbat gauza biar dira, bada ondo komulgetako?

E. Iru Jauna.

I. Zeintzuk dira?

E. Lelengoa, barau naturalien egotia.

Bigarrena, Jangoikoaren, graziyan egotia.

Irugarrena, zer errezibietan dan yakitia.

I. Zer da barau naturala?

E. Gaberdiko amabiyetarik, eta komulgau artian ezerbere artu bagarik egotia.

I. Zer da Jangoikoaren graziyan egotia?

E. Pekatu mortal guztiyetarik libre egotia.

I. Eta zelan yarriko da graziyan komulgetako, pekatu mortalien aurkituten dana?

E. Ondo konfesauta, Jauna.

I. Eta konfesau azkero gogora bayatorko pekatu mortalen bat, zer egin biar dau?

E. Barriro konfesau, komulgau baño leenago.

I. Zer artzaiten dozu komulgetan zarianian?

E. Jesu Kristo Jangoiko, ta gizon egiazkoa, zein dagoan bene-benetan Sakramentu Santu Altarakoan.

I. Zer da Sakramentu Santu Altarkoa?

E. Ostiya konsagradua, eta Kaliz konsagradua.



- I. Nos iminten da Jesu Kristo ostiyan, eta Kalizian?
- E. Sazerdotiak konsagraziñoko berbak esaten dituzanian.
- I. Eta berba santuaek esan baño leenago zer dago Ostiyan, eta zer Kalizian?
- E. Ostiyan dago ogi puskabat, eta Kalizian ardao puskabat, ur tanga bategaz.
- I. Eta konsagraziñoko berbak esan azkero zer dago?
- E. Ostiyan Jesu Kristoren gorputza, eta Kalizian Jesu Kristoren odola.
- I. Ostiya konsagraduan bago gorputza baño beste gauzarik?
- E. Bai, Jauna, an dago Jesukristoren gorputzagaz batera bere odola, arimia, eta Jangoikotasuna; eta bardin Kaliz konsagraduan Jesukristoren odolagaz batera dago bere gorputza, arimia, eta Jangoikotasuna.
- I. Konsagraziñoko berbak esan azkero bago Ostiyan ogirik, edo Kalizian ardorik?
- E. Ez Jauna, ezpada ogiyaren, eta ardaoaren irudiya, edo akzidentiak; zeintzuk dirian usaiña, koloria, gustua, eta ganekoak.
- I. Bizirik, ala ilik dago Jesukristo ostiya, eta Kaliz konsagraduan?
- E. Bizirik, Jauna, Zeruan dagoan legez, baya estalduta ogiyaren eta ardaoaren irudiyakaz, edo akzidentiakaz.
- I. Ostiya konsagradua erdibituten, edo apurtuten bada, erdibituten ete da Kristoren gorputza?
- E. Ez, Jauna, bada ain osorik dago zati batian, zein bestian; ain osorik ostiya txikiyan, zein andiyan; eta ostiyaren apurrik txikirrenian, zein ostiya osoan: dagoalako Jesu Kristo guztiya ostiya guztiyan, eta guztiya ostiyaren edozein zatitan edo apurretan.
- I. Pekatu mortalian komulgetan danak artzaiten dau Jesu Kristo?
- E. Bai, Jauna, baya ez bere onerako, ezpabere bere kaltian; egiten dabelako sakrilejiyo ikaragarri bat, eta Judasen pekatua.
- I. Eta biardan moduan komulgetan dirianak zer geyago egin biar daudee frutu andiyagoak alkanzetako?

E. Komulgau baño leenago pensau ondo nor dan euren biyotzetara datorren Jaun andiya; egin fedeko, esperantzako, eta karidadeko aktoak; artu humiltasun eta bildur santu andiyagaz: eta komulgau azkero esker onak emon mesede ain andiya gaitik, urten bagarik bertati (Judasek legez) Elexarik kanpora.

I. Eta zer egin biar da esker onak emoiteko?

E. Munduko ardurak, eta zer egin guztiyak alde batera itxi, sensunak ta biyotza batu, ta egon pensetan: nor etorri da nigana? Nor da Jesukristo? eta, nor nas ni? Eskatu gero gura dan guztiya, bada, ondo komulgau bagara, eztago mesediak alkanzetako era ederragorik.

I. Orlan ezta ondo komulgau ta bertati Altarak bisitetia, Errosariyoa errezetia, edo Konfensoriak emon deutsan penitenziya kunpliyetan egotia?

E. Ez, Jauna, bada orreek onak izan arren, eztira orduan egin biar dirianak: orduan egon biar dau batek, ordu lauren baten gitxiyenez, leen esan doguzan gauzak bere artian gogoan darabiltzala.

I. Zetarako da Sakramentu Santu Estremaunziñokoa?

E. Iru gauzatarako

I. Zeintzuk dira?

E. Lelengoa, lengo bizitza gaistoaren errastu, ta ondakinak kentzaiteko.

Bigarrena, arimiari indarra emoiteko Demoniñoaren tentaziñoen kontra.

Irugarrena, gorputzari osasuna emoiteko, arimiaren kalterako izango ezpada.

I. Eta uso-errazozkora eldu zirianak gaisho peligruzkoagaz dagozian, ete daukeen Sakramentu Santuau artzaiteko obligaziñorik?

E. Bai, Jauna, eta pekatu mortala egiten daudee aleginez artzaiten ezpadaudee, edo pekatu mortalian egiten badaudee.

I. Bada zer egingo dau pekatu mortalian dagoanak ondo artzaiteko?

E. Konfesau leenago, ta ezin konfesau bada, artu kontriziñozko damua.

I. Zetarako da Sakramentu Santu Ordiakoa?



E. Konsagretako, ta ordenduteko Elexako ministro dignoak zelan dirian Sazerdotiak, Diakonuak, eta bestiak.

I. Eta Elexako ministroai, besteen artian bere, Sazerdotiai zor yake errespeto andiyagoa?

E. Bai, Jauna.

I. Zetarako da Sakramentu Santu Matrimoniokua?

E. Ezkonduteko, ta ezkonduci graziya emoiteko, zeinegaz alkarregaz bakian bizi ditezan, eta Zerureko azi dagiyezan seme alabak.

I. Eta Sakramentu Santu au artzaiteko graziyan egon biar daudec ezkonduten dirianak?

E. Bai, Jauna, pekatu mortalaren beian.

I. Eta graziyan eztagozanak zelan prestauko dira ezkonduteko?

E. Ondo konfesauta.

Pekatu kapitalak dira zazpi.

Lelengo , Soberbiya.

Bigarrena, Abariziya.

Irugarrena, Luxuriya.

Laugarrena, Iria edo aserrakunsia.

Bostgarrena, Guleriya.

Seigarrena, Enbidiya.

Zazpigarrena, Nagitasuna.

I. Zegaitik emoten deutseezu pekatu onei pekatu kapitalen uzena, geiyenian pekatu mortalen uzena emoiten bayatec?

E. Emoiten yake pekatu kapitalen uzena, dirialako beste pekatuen buru, iturri ta sustraiyak legez: eta pekatu mortalen uzena etxatorke ain ondo, bada askotan benialak baño eztira.

I. Nos dira mortalak?

E. Jangoikoaren, eta projimuaren kontra dirianian.

I. Nos dira karidadiaren kontra?

E. Eurak gaitik austen danian Jangoikoaren, edo Elexiaren mandamenturen bat gauza pisuzkoan.

I. Zer da Soberbiya?

E. Bestiak baño geiyago izateko gurari larregibat.

I. Zer da Abariziya?

E. Da ondasunen gurari larregi bat.

I. Zer da Luxuriya?

E. Gorputzeko gustu loiyen gurari txar bat.

I. Zer da Iria edo Aserrakunsia?

E. Bengetako gurari zital bat.

I. Zer da Guleriya?

E. Yateko, ta edateko gurari larregi bat.

I. Zer da Enbidiya?

E. Besten ona ekusi ezina.

I. Zer da Nagitasuna?

E. Gauza onerako yausitasun, edo atzerakuntza bat.

Zazpi pekatu oneen kontra dagoz zazpi birtute.

Soberbiyaren kontra, humildadia.

Abariziyaren kontra, prestutasuna.

Luxuriyaren kontra, kastidadia.

Aserrakunziaren kontra, paziyenziya.

Guleriyaren kontra, yan edanian begiratua izaitia.

Enbidiyaren kontra, karidadia.

Nagitasunaren kontra, bizkortasuna.

Arimiare areriyoak, zeintzuk ganik iñes egin biar dogun dira iru.

Lelengoa, Mundua.

Bigarrena, Demonifioa.

Irugarrena, Aragiya.



I. Nor da Mundua?

E. Gizon mundu zaliak, ta gaistoak.

I. Nor da demoniñoa?

E. Da Jangoikoak Zeruan egin eban Angerubat, zein yaigi zalako, beste askogaz batera, bere Majestadiaren kontra, bota ebana Infernura bere lagunakaz batera, zeintzuei emoiten deutsegu Demonioen uzena.

I. Nor da Aragiya?

E. Da geure gorputza bera, bere gurari deungakaz.

I. Zelan benzidu, ta inñes egiten da mundua ganik?

E. Bere andikeriyai, ta banidadiai yaramon ezagaz.

I. Zelan benzidu, ta inñes egiten da Demonioa ganik?

E. Oraziñoagaz, ta humildadiagaz.

I. Zelan benzidu, ta inñes egiten da aragiya ganik?

E. Oneganik inñes egiten da, ta au benziyetan da gorputza neke pian erabiliyagaz, bere gustuak ukatuagaz, ta barau eginagaz. Au da areriyorik andiyena, zegaitik eze ezin geuganik bota giñai aragiya; mundua ta Demonioa bai.

Birtute Teologalak dira iru.

Lelengoa, Fedia.

Bigarrena, Esperanzia.

Irugarrena, Karidadia.

I. Eta zelan eztogu utsik egingo iru birtute oneen aktoak egiteko daukagun obligaziñoan?

E. Deboziño, ta sarri errezetan dogula (edozein Kristiñauk egin biar leukian legez) Kredoa, ta Aitaguria: eta biyotzerik esaten dogula Neure Jesu Kristo Jauna.

Birtute kardinalak dira lau.

Lelengoa, Prudenziya.

Bigarrena, Justiziya.

Irugarrena, Fortalezia, edo Sendotasuna.

Laugarrena, Tenplanzia, edo yanedanian begiratua izatia.

Gorputzeko Zenzunak dira bost.

Lelengoa, Begiyakaz ekustia.

Bigarrena, Belarriyakaz enzutia.

Irugarrena, Aoagaz gustu artzaitia.

Laugarrena, Surrakaz usain egitia.

Bostgarrena, Eskuakaz ukututia.

I. Zetarako emon euskuzan Jangoikoak zenzunak, eta gorputzeko alde guztiyak?

E. Guztiyakaz, ta gauza guztiyetan bera serbiyetako.

Arimako Potenziyak dira iru.

Memoriya, entendimentua, eta Borondatia.

I. Zetarako emon euskun Jangoikoak Memoriya?

E. Bera, ta bere mesediak gogora ekarteko.

I. Zetarako emon euskun Entendimentua?

E. Ezagututeko geure Jauna, eta bera gogoan erabilteko.

I. Zetarako emon euskun Borondatia?

E. Bera ametako ontasunik andiyena legez, eta beragaitik projimua.

I. Eta zer da geure arimia, zeinenak dirian potenziya oneek?

E. Da Espiritu bat, innoz bere ilgo eztana, zein egin eban ezebere eze-rik Jangoikoak bere antzera ta irudira.

Espiritu Santuaren Doiak dira zazpi.

Lelengoa, Yakituriyako Doia.

Bigarrena, Entendimenduko Doia.

Irugarrena, Konsejuko Doia.

Laugarrena, Zienziyako Doia.

Bostgarrena, Fortalezako Doia.

Seigarrena, Piedadeko Doia.



Zazpigarrena, Jangoikoaren bildurraren Doia.

Espiritu Santuaren Frutuak dira amabi.

Lelengoa, Karidadia.

Bigarrena, Bakia.

Irugarrena, Biotzeko anditasuna.

Laugarrena, Benignidadia, edo errukitasuna.

Bostgarrena, Fedia.

Seigarrena, Kontinenziya.

Zazpigarrena, Arimako poza.

Zortzigarrena, Paziyeziya.

Bederatzigarrena, Ontasuna.

Amargarrena, Mansotasuna.

Amakagarrena, Modu ona.

Amabigarrena, Kastidadia.

Bienabenturanzak, edo Zoriontasunak dira zortzi.

1. Zorionekoak biyotzetai pobre dirianak, bada euren izango da Zeruko Erreina.
2. Zorionekoak mansoak, bada eurak izango dira luraren yaube.
3. Zorionekoak negar egiten daudeenak, bada eurak izango dira poztuak.
4. Zorionekoak onaren gose ta egarri dirianak, bada eurak asiak izango dira.
5. Zorionekoak errukiorrak, bada eurentzako bere errukiya izango da.
6. Zorionekoak biyotz garbikoak, bada eurak ekusiko daude Jangoikoa.
7. Zorionekoak baketsuak, bada euren emongo yake Jangoikoaren semeen uzena.

8. Zorionekoak onak izanagaitik persekuziñoia daruenak, bada euren izango da Zeruko Erreina.

- I. Zer esan dogu orain?
- E. Zortzi Bienabenturantzak, edo Zoriontasunak.
- I. Ze gauza dira Zoriontasun oneek?
- E. Dira Espiritu Santuaren birtuteetarik, eta doietarik datozen obrarik onenak.
- I. Nortzuk dira biyotzetai pobriak?
- E. Eztaudeenak gura munduko onrarik, ez aberzatasunik, ezta laburrenik bere: edo beintzat euren biyotzetai ifini eztaudeenak.
- I. Nortzuk dira mansoak?
- E. Aserririk artzaiten eztaudenak, ezta bere apurrik bere.
- I. Zelan izango dira luraren yaube?
- E. Euren buruen yaube izanda.
- I. Nortzuk dira negar egiten daudeenak?
- E. Atseginik laburrenak bere etxiten dituezanak.
- I. Nortzuk dira onaren gose, ta egarri dirianak?
- E. Alegiaz ezetan bere utsik egin gura ez leukeenak.
- I. Nortzuk dira errukiorrak?
- E. Inori bere, on baño besterik, egin gura ezteutseenak.
- I. Nortzuk dira biyotz garbikoak?
- E. Euren gurari txarrai ukatuten deutseenak.
- I. Nortzuk dira baketsuak?
- E. Euren buruai, ta besteenai bake ona emon daroyoenak.
- I. Nortzuk dira onak izanagaitik persekuziñoia daruenak?
- E. Gauza on guztietan sendo ta firme dagozanak, persegiuak izan arren.
- I. Zegaitik deretxe onei zoriontasunak?



E. Eurretan dagoalako bizitza onetan zoriyonekoak izatia, eta Zeruaeren esperanza menetakoa.

I. Zeinbat dira gizonaren akabuko gauzak?

E. Lau Jauna.

I. Zeintzuk dira?

E. Eriyotza, Judiziyoa, Infernua, eta Gloriya.

I. Zer da Gloriya?

E. Da estadu, edo bizimodu bat alde guztietati egin egina, zeinetan dagozan on guztiyak gatzik bapere bagarik: Infernuan gatx guztiyak onik bapere bagarik aurkituten dirian legez.

I. Eta infernuti librau, eta Gloriya alkanzetako zer egin biar da?

E. Mandamentuak gorde.

I. Eta bagoz bideren batzuk mandamentuak errazago gordetako?

E. Bai, Jauna.

I. Zeintzuk dira?

E. Sarri konfesetia, ta komulgetia; goshian eguneko obra guztiyak Jangoikoari opatutia; egunian egunian mez-enzutia; Ama Birjiniari Errosariyoa errezetia; liburu debotoetan irakurtia: oraziño mentala; gaubian gaubian konziyenzia esaminetia; eta guztiya baten esatiarren, Konfesore yakitun, birtute andiko, ta ondo begiratu bat artu, ta gauza guztiyetan bere esanera egotia.

M. Ondo diñozu zuk ori, bada Jangoikoa serbidu, ta bizitza onian irauteko laguntasun andiya da Konfesore on bat eukitia. Egizuz, bada, zuk bere alegin guztiyak topetako, San FRANZISKO SALESek, eta Santa TERESAk diñueen legez, askoren artian oneen bat; eta Konfesoría izan-go yatzu Angeru bat legez, zeinek mandamentu Santuen bideti eroango zaituzan Zeruko Gloriya gozetara eltzaitartian.

M. Jangoikoak guztiyok ara eroan gagizala. Amen.

KONFESIÑO JENERALA

Ni pekatariyau konfesetan nayako Jangoiko guztiz poderosoari, Santa Mariya beti Birjiniari, San Migel Arkanjeluari, San Juan Bautistari, San Pedro, ta San Paulo Apostolui, Santu guztiyai, ta zeuri neure Aita espirituala, egin dodala pekatu pensamentuagaz, berbiagaz, ta obriagaz: neure erruz, neure erruz, neure erru andiz: orregaitik erregututen deusat Santa Mariya beti Birjiniari, San Migel Arkanjeluari, San Juan Bautistari, San Pedro, ta San Paulo Apostolui, Santu guztiyai, ta zeuri neure Aita espirituala, erregutu dagiyozula nigaitik geure Jaun eta Jangoikoari. Amen.

AKTO KONTRIZIÑOZKOA

Neure Jesu Kristo Jauna, Jangoiko ta gizon egiazkoa, neure Kriyadoria, ta Erredentoria; zukan sinistuten dot, zukan esperetandot, zu ametan zaitudaz gauza guztiyen gania; zu izanik ain ona, ofendidu zaitudazalako damu dot Jauna, damu dot neure biyotz guztirik zure Majestadia ofendidua: eta iminten dot propositu firmebat, zeure graziyak batera, ez geiyago ofendiyetako, eta apartetako ofendidu ziñaidazan okasiño guztiyetarik; neure pekatuak konfesetako ta kunpliyetako emoitent yatan penitenzia. Ofreziyetan deusudaz, Jauna, neure bizitzia, obrak eta trabajuak neure pekatuen pagureko: eta konfiyetan dot zeure ontasun eta miserokordiya kabubakoagan parkatuko deustazuzala zeure odol guztiz preziosoagaitik, ta zeure pasiño ta eriotziagaitik, eta emongo deustazula graziya emendetako, eta irauteko zeure serbiziyo Santuan neure bizitzia emoitartian. Am.



Fedeko, Esperanzako, eta Karidadeko Aktoak

Sinistuten dot Aita Jangoikoagan, sinistuten dot Seme Jangoikoagan, sinistuten dot Espiritu Santu Jangoikoagan, sinistuten dot Jangoiko Bakar bat iru personetan.

Sinistuten dot Trinidadeko bigarren personia Ama Birjiniaren Sabel guztiz garbiyan Espiritu Santuaren graziaz gizon egin zala, eta gu salberrarren yayo zala, kurtzian il, biztu, ta zerura igon ebal: eta Judiziyoko egunian etorriko dala biziyak eta ilak juzgetan; emoiteko onai betiko gloria, eta deungai betiko infernua; Sinistuten dot Santisimo Sakramentu Altarakoan dagola Jesu Kristo geure Jauna Jangoiko ta gizon egiazkoa; Zeruan dagoan berbera: eta sinistuten dot Elexa Ama Santiak sinistuten eta irakasten daben guztiya; eta fede onetan beti bizi, eta il gura dot.

Esperetan dot Aita Jangoikoagan, Esperetan dot Seme Jangoikoagan, Esperetan dot Espiritu Santu Jangoikoagan; Esperetan dot neure Jangoikoak parkatuko deustazala neure pekatu guztiyak, eta emongo deustala Zeruko gloria; eta mundu onetan ara eltzateko biar dodazan graziya ta laguntasun guztiyak, bere miserikordiya kabubakoagaitik, Jesu Kristo geure Jaunaren merezimentuak gaitik, eta bere graziaz egiten dodazan obra onak gaitik.

Ametan dot Aita Jangoikoa, ametan dot Seme Jangoikoa, ametan dot Espiritu Santu Jangoikoa, ametan dot neure Jangoikoa neure biyotz guztiti, eta gauza guztiyak baño geiyago, dalako bera guztiz ona, ta amoroso: eta bere amorearren ametan dot neure projimua neure burua legez. Amen.

Goshian oerik yaigi, ta Jangoikoari fede bizi bategaz begiratu, ur bedeinkatua artu, kurtze Santiaren egin, eta egun atako obrak opatuteko

ORAZIÑO

Esker andiyak eta alabanzak emoiten deusudaz, neure Jangoikoa, ezerezeti kriyadu nozulako, Kristiñau egin, eta Jesu Kristoren odol pre-

ziosoagaz erredimidu nozulako orain artian gorde nozulako, eta orain giño zeure esku santuetarik artu dodazan mesede guztiyak gaitik.

Aita guria, ta Abe Mariya.

Opa deusudaz, Jauna, zeure gloriyarik andiyenerako gaurko neure pensamentu, berba, neke, ta obra guztiyak, neure Jesus onaren odol, ta merezimentuakaz batera.

Aita guria, ta Abe Mariya.

Jauna, neure pekatu guztiyen damua daukat, zeu gauza guztiyen ganean ametan zaitudazalako; borondate sendo bategaz, zeure graziya lagun dodala, zeu ofendidu baño leenago neure bizitzia galtzateko. Baita artzaiten dot gogoa irabazteko gaur dirian Induljenziya guztiyak neure pekatuen satisfaziñorako, ta Purgatoriyoko arimen onerako: eta orretarako opabere deusudaz gaurko neure neke, biar, atsakaba, ta pena guztiyak: eta obeto artuan izan ditezan, ofrezietan deusudaz Ama Birjiniaren eskuetati, zeineri esketan deusadan bere konzeziño garbiya gaitik, ta bere doloriak gaitik, gorde nagiala gaur, da beti gatx guztiyatarik, bein bere zeure graziya galdu eztagidantzat. Am.

Iru Abe Mariya Birjiniari.

Aingeru Guardakoari Oraziñoa

Neure Angeru Guardako maitia: gorde nagizu gaurko neure pausu, berba, ta gauza guztiyetan, benzidu ez nagiyentzat neure areriyok; egin eztagidan zeure aurrian neure Jangoikoaren kontrako gauzarik: neure oraziño, ta obra onak eroan egizuz Jangoikoaren Tronuaren aurrera, ta alkanzadu egidazu gero eriyotza on bat. Amen.

Aita guria, ta Abe Mariya.

San Joseperi Oraziñoa

Neure Aita San Josepe bedeinkatu gozoa; Ama Birjiniaren Esposo egiazkoa; Jesus guztiz gozoaren Aita ordekoa; eta eriyotzako orduan



dagozan tristien anparu segurua: nik artzaiten zaitudaz egun onetan neure bitarteko ta defensorretzat; lagun egidazu, bada, gaurko ta neure bizi guztiko obra, berba, ta gauza guztiyetan, dirianak izan ditezantzat neure Jangoikoaren gloriarako; eta neure eriyotzako ordu estuan lagundu egidazu, eta eroan egizu neure arimia Jangoikoa alabetan zeugaz batera, betiko gloriyan. Amen.

Aita guria, ta Abe Mariya.

**Gaubian, oian sartu baño leenago ur bedeinkatua artu, kurtze
Santiaren egin, eta gero esango dirian**

ORAZINOAK

Neure Jangoikoa, emon egidazu graziya gau au zeu ofendidu bagarik igaroiteko, eta gorde nagizu gauza deunga guztiyetarik. Amen Jesus Mariya, ta Josepe.

Aita guria, ta Abe Mariya.

Ama Birjiniari Oraziñoa

O Birjina Mariya, Jangoikoaren Ama maitia, eta pekatari triste guztiyen miserikordiyazko Ama! lagundu egidazu gau onetan, librau nagizu gatx guztiyetarik, eta ez nagizu desanparau neure eriyotzako orduan.

Iru Abe Mariya.

Angeru Guardakoari Oraziñoa

Neure Angeru Guardakoa, lagundu egidazu, eta gau onetan gorde nagizu: JESUS, MARIYA, JOSEPE sokorridu nagizue. Jangoikoak emon daigula bere graziya, eta gero betiko gloriya. Am.

Aita guria, ta Abe Mariya.

Maya bedeinkatuteko modua

Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren uzengan. Amen.

Neure Jauna eta Jangoikoa, geure esperanzia dago zeugan, eta zuk emoiten dozu bere denporan yateko biar doguna. Zeure eskua zabaldu, ta guztiyok bendiziñoz betetan gozuz.

Aita guria, ta Abe Mariya: eta gero esango da.

Ondasun guztiyen emoilia, eta geure Jauna; zeure eskuetarik artu, eta yan biar dogun guztiya zuk bedeinkatu egizu, Jesu Kristo zeure Semia gaitik: Aitiak, eta Semiak, eta Espiritu Santuak guztiyok bedeinkatu gagiyezala, eta bere gloriyako Maira betiko eroan gagiyezala. Amen.

Yan azkero graziyak emoiteko

Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren uzengan. Amen.

Eskerrak, eta alabanzak emoiten deusuguz, Jauna, orain ta beti egin deuskuzuzan mesede guztiyak gaitik.

Zeuganik geure ganera etorri dan bendiziño, ta mesede onegaitik mundu guztiyak alabau zagizala. Amen.

Aita guria, ta Abe Mariya.

Geure ongin guztiyai, Jauna, pagau egiyezu zeure uzengaitik; eta arima fiyel guztiyak eroan egizuz zeu alabetan. Am.

Aita guria, ta Abe Mariya.

Arima fiyel guztiyai Jangoikoak emon dagiyoela betiko deskansua, ta geuri emon daigula bere graziya, ta bakia.

Emen batu gaituzan Jaunak, batu zagizala guztiyok Zeruko gloriyan. Am.



Abe Mariyetakoak

V. Angeruak barri onak Ama Birjiniari emon eutsazan.

R. Eta Espiritu Santuaren graziyaz Jangoikoaren Semia bere sabelian sortu zan.

Abe Mariya.

V. Ara emen Jaunaren esklabia.

R. Egin bidi nigan zuk esan dozuna.

Abe Mariya.

V. Jangoikoaren Semia gizon egin zan.

R. Eta gure artian bizi izan zan.

Abe Mariya.

V. Jangoikoaren Ama Santia Erregutu egizu gu gaitik.

R. Kristoren promeseen digno izan gaitazan.

ORAZIÑOIA

Emon egiguzu arren, Jauna, geure arimetan zeure graziya, Angeruak barri onak ekarri, ta Kristo zeure Semiaren Gizon egitia ezagutu dogu-nok, bere Pasiño ta Kurtzia gaitik, betiko gloriyara eroanak izan gaitazan. Amen.

Meza erasoteko modua

Sac. In nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti Amen. Introibo ad Altare Dei.

R. Ad Deum qui lætificat juventutem meam.

S. Judica me Deus, et discerne causam meam de gente non sancta, ab homine iniquo et doloso erue me.

R. Quia tu es Deus fortitudo mea: quare me repulisti, et quare tristis incedo dum affligit me inimicus.

S. Emitte lucem tuam, et veritatem tuam, ipsa me de duxerunt, et adduxerunt in montem sanctum tuum et in tabernacula tua.

R. Et introibo ad Altare Dei, ad Deum qui lætificat juventutem meam.

S. Confitebor tibi in cithara, Deus, Deus meus, quare tristis est anima mea, et quare conturbas me.

R. Spera in Deo, quoniam adhuc confitebor illi: salutare vultus mei, et Deus meus.

S. Gloria Patri, et Filio, et Spiritu Sancto.

R. Sicut erant in principio, et nunc, et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

S. Introibo ad altare Dei.

R. Ad Deum qui lætificat juventutem meam.

S. Adjutorium nostrum in nomine Domini.

R. Qui fecit Cælum, et terram.

S. Confiteor Deo Omnipotenti etc. et vos fratres. orate pro me ad Dominum Deum nostrum.

R. Misereatur tui Omnipotens, Deus, et dimissis peccatis tuis, perducatur te ad vitam æternam.

S. Amen.

R. Confiteor Deo Omnipotenti, Beatæ Mariæ semper Virgini, Beato Michaeli Archangelo, Beato Joanni Baptistæ Sanctis Apostolis Petro, Et Paulo, omnibus Sanctis et tibi Pater quia peccavi nimis cogitatione, verbo, et opere, mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa. Ideo precor beatam Mariam semper Virginem, beatum Michaelem Archangelum, beatum Joannem Baptistam, Sanctos Apostolos Petrum, et Paulum, omnes Sanctos, et te Pater orare pro me ad Dominum Deum nostrum.



S. Misereatur vestri Omnipotens Deus, et dimisis peccatis vestris perducatur vos ad vitam æternam.

R. Amen.

S. Indulgentiam, absolutionem et remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis Omnipotens, et misericors Dominus.

R. Amen.

S. Deus tu conversus vivificabis nos.

R. Et plebs tua læbitur in te.

S. Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam.

R. Et salutare tuum da nobis.

S. Domine exaudi orationem meam.

R. Et clamor meus ad te veniat.

S. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

S. Oremus &a.

S. Kyrie eleyson.

R. Kyrie eleyson.

S. Kyrie eleyson.

R. Christe eleyson.

S. Christe eleyson.

R. Christe eleyson.

S. Kyrie eleyson.

R. Kyrie eleyson.

S. Kyrie eleyson.

S. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

S. Per omnia sæcula sæculorum.

R. Amen.

Epistolia akabau ta

R. Deo gratias.

S. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

S. Sequentia Sancti Evangelii secundum &a.

R. Gloria tibi, Domine.

Ebanjeliyua akabau ta

R. Laus tibi, Christe.

S. Orate fratres &a.

R. Suscipiat Dominus sacrificium de manibus tuis, ad laudem, et gloriam nominis sui, ad utilitatem quoque nostram, totius que Ecclesiæ suæ santæ.

S. Amen.

Prefaziyua esaten danian

S. Per omnia sæcula sæculorum.

R. Amen.

S. Dominus vobiscum. R. Et cum spiritu tuo.

S. Sursum corda. R. Habemus ad Dominum.



S. Gratias agamus Domino Deo nostro.

R. Dignum et justum est.

Pater nosterra esan azkero

S. Et ne nos inducas in tentacionen.

R. Sed libera nos a malo.

S. Pax Domini sit semper vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

S. Ite Missa est, edo, Benedicamus Domino.

R. Reo gratias.

S. Requiescant in pace.

R. Amen.

S. Pater, et Filius, et Spiritus Sanctus.

R. Amen.

S. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

S. Sequentia Sancti Evangelii secundum &a.

R. Gloria tibi Domine.

Ebanjeliyoa akabau ta

R. Deo gratias

LAUS DEO

